

TSSE-REN EKARPENA ALDAKETA SOZIOKULTURALEKO PROZESUETAN

IKERKETA PROIEKTUA

2018

bizkaiko hirugarren
sektorearen behatokia
observatorio del
tercer sector de bizkaia



AURKIBIDEA

INTRODUCCIÓN..... ¡Error! Marcador no definido.

MARCO Y JUSTIFICACIÓN ¡Error! Marcador no definido.

Algunos datos de contexto sobre el Tercer Sector Social de Euskadi ¡Error! Marcador no definido.

Lo que sabemos por el Libro Blanco y otras investigaciones sobre el impacto de la labor de las organizaciones del TSSE..... ¡Error! Marcador no definido.

¿Por qué es importante investigar sobre la contribución del TSSE a procesos de cambio sociocultural? ¡Error! Marcador no definido.

Marco teórico y conceptual desde el que abordar el análisis..... ¡Error! Marcador no definido.

PLANTEAMIENTO ¡Error! Marcador no definido.

Hipótesis..... ¡Error! Marcador no definido.

Objetivos ¡Error! Marcador no definido.

METODOLOGÍA Y PROCESO DE TRABAJO ¡Error! Marcador no definido.

BIBLIOGRAFÍA ¡Error! Marcador no definido.

SARRERA

Proiektuaren asmoa da **Euskadiko hirugarren sektore sozialak (TSSE, gaztelaniaz)**¹ **aldaketa soziokulturaleko prozesuetan egiten duen ekarpena aztertzea** Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeek duela hainbat hamarkadatik egiten duten lanak nabarmen lagundu du eragin sozial handiko aldaketak sortzen. Politika publikoetan izandako eragina da agerikoena. Kasu honetan, ikerketa-proiektua gai zehaztugabeagoan oinarritzen da, baina era berean garrantzitsua da: aldaketa soziokulturalak, hala nola pertzepzio-aldaketak, hizkuntza-aldaketak (hizkuntza inklusiboa eta abar) edo herritarren jokabidea, oro har. Hori ez da sentibilizazio-aldaketetan soilik islatzen, aldaketa berrien eragile ere bada.

Azterketa honen bidez, Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeek aldaketa soziokulturalean egiten duten **ekarpena bistaratu** nahi da, egindako lanari **erabateko balioa** ematen baitio.


¹ Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko 6/2016 Legeak, maiatzaren 12koak, adierazten du erakunde multzoak osatzen duela hirugarren sektorea; legezko egitura eta nortasun juridikoa dute, irudi juridikoari dagokion erregistroan inskribatuta daude, borondatezko jarduera, irabazi-asmorik gabe, pribatuak, autogobernatuak eta autokudeatutakoak dira, egoitza eta jarduera Euskadin dute, eta haien helburu nagusia honako hau da: gizarteratzea sustatzea, garapeneko lankidetzat sustatzea, bazterketa egoeran edo egoera ahulean, babesgabe edo mendekotasun egoeran dauden pertsona, familia, kolektibo edo komunitateen eskubideak garatzea. Hori guztia esku-hartze sozialeko jardueren bidez egiten dute, hau da, gizarte-zerbitzuak, enplegurako sarbidea sustatzea eta gizarteratzea sustatzera bideratutako beste edozein jardueraren bidez, helburu horrekin eremu, politika eta sistemen elkarreragineko espazioetan garatutako jarduerak barne, hala nola gizarte eta lan arloko eremua, gizarte eta bizitoki arlokoa, gizarte eta hezkuntza arlokoa, gizarte eta osasun arlokoa, gizarte eta justizia arlokoa edo gizarte eta kultura arlokoa, besteak beste.

MARKOA ETA JUSTIFIKAZIOA

Liburu Zuriari eta beste ikerketa batzuei esker Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeen lanaren eraginari buruz dakiguna

Euskadiko hirugarren sektore sozialak gizarteari, oro har, egiten dion ekarpena, orain arte, egindako lanaren eraginaren arabera aztertu izan da. Euskadiko hirugarren sektore sozialeko Liburu Zuriaren (2015) datuen arabera, sektoreko erakundeen % 35,78ren ustez, euskal gizarteak oraindik ez du aitortzen behar beste haien lana eta herritarrei, oro har, egiten dien ekarpena. 20 urte baino gehiagoko ibilbidea duten erakundeek aitortpen sozial handiagoa hautematen dute ibilbide laburragoa dutenek baino.

ERAKUNDEEN BANAKETA, GIZARTEARENGANDIK JASOTZEN DUTEN AITORPENAREN BALORAZIOAREN ARABERA. %



Iturria: Euskadiko hirugarren sektore sozialeko Liburu Zuria txostena

Bizkaiko Hirugarren Sektoreko Behatokiak egindako Bizkaiko Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektorearen pertzepzio sozial eta historiari buruzko ikerketak ere joera hori erakusten dute. Zehazki, *Bizkaiko Hirugarren Sektore Sozialaren Pertzepzioari*² buruzko azterketak nabarmentzen du gizartearekin komunikazioa hobetu behar dela, gutxiago aitortzen diren nortasun-elementuak hurbiltzeko, hau da, honako hauekin lotuta daudenak: erakundeen autonomia, irabazi-

² Txostena esteka honetan kontsulta daiteke: http://www.3sbizkaia.org/Archivos/Documentos/Enlaces/1533_estudio-cast.pdf

asmorik gabekoak izatea eta interes orokorreko orientazioa izatea. Bizkaiko lurralde historikora mugatuta egon arren, ikerketak joera batzuk islatzen ditu, eta horiek EAE osora orokortzeko modukoak izan daitezke:

- inkesta egindako pertsonen % 93 nahiko ados edo oso ados zegoen baieztapen honekin: “erakunde horietan lan egiten duten pertsonak (hirugarren sektorea) pertsona solidarioak izan ohi dira, gizartea hobetu nahi dutenak”;
- hamar lagunetik zortzik inguruk uste dute erakundeek dezente edo asko hobetzen dutela pertsonen bizi-kalitatea edo balioak transmititzeko eta sentsibilizatzeko lana;
- gutxi gorabehera hamarretik zazpi nahiko ados edo guztiz ados zeuden erakundeek aldaketa eta eraldaketa soziala lortzen laguntzen dutela, parte-hartze soziala ahalbidetzen dutela sistema demokratikoagoa eginez eta administrazio publikoak konpontzeko gai ez diren arazoak konpontzen dituztela.
- aldiz, herritarrek ez zuten neurri berean hautematen hirugarren sektoreko erakundeek administrazio publikoei, parlamentuei, alderdi politikoei eta abarri presioa eta kritika egiteko gaitasuna. Zehazki, % 36,3 soilik zegoen nahiko ados edo guztiz ados erakundeek gaitasun hori izatearekin.

EKARPEN SOZIALARI BURUZKO BALORAZIOA. EMAITZA OROKORRAK. %

ERAKUNDEEN EKARPENARI BURUZKO BALORAZIOA	Ez oso ados edo batere ados ez	Nahiko ados edo guztiz ados	Erantzun gabekoen %
...gizarte mailako eraldaketa eta aldaketa lortzen laguntzen dute (mundu hobea, bidezkoagoa, gizartea hobetzea...).	31,5	68,5	2,5
...gizarte mailako partaidetza ahalbidetzen dute eta sistema demokratikoagoa izaten laguntzen dute .	31,6	68,4	7,2
...gizarteari zuzendutako balioen inguruko sentsibilizazio- eta transmisio-lana egiten dute (elkartasuna, lankidetzeta, heziketa eta abar).	18,5	81,5	3,7
...pertsonen bizi-kalitatea hobetzen laguntzen dute .	17,4	82,6	4,0
...gaitasun kritikoa dute eta administrazio publikoei, parlamentuei, alderdi politikoei eta abarrei presioa egiteko gaitasuna dute.	63,7	36,3	11,5
...administrazio publikoek (gobernuak) konpondu ezin dituzten arazoak konpontzen dituzte.	31,0	69,0	9,2

Bestalde, *Bizkaiko Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektorearen Historiari*³ (2012) buruzko ikerketan erakundeek egindako ekarpen garrantzitsuak jaso ziren, eta horien artean, gizarte solidarioa, konprometitua eta kritikoa sustatzea nabarmentzen da. Eraldaketa hori nabarmentzen da erakundeak eraldaketa sozialerantz bideratu izanarekin eta beharrezko aldaketa sozialen lider izateko, sustatzeko, laguntzeko... konpromisoarekin, kolektibo edo komunitate jakin baten loturatik, eta haren egoera hobetzeko eta bizi-kalitate sustatzeko. Gainera, gizartea eraldatzen laguntzea nabarmentzen da, sentsibilizazioaren bidez, egoera eta gertakari zehatzak salatuz, aldarrikapenak bideratuz eta ahotsik ez zuenari ahotsa emanez, ekimen eta kanpainen bidez.

Esku artean dugun ikerketa-proiektuan, Euskadiko hirugarren sektore sozialak gizarteari, oro har, egiten dion ekarpena aztertzeko lanean aurrera egitea da helburua, eta egindako lanaren eraginaz harago, aldaketa soziokulturaleko prozesuetan egiten duten ekarpena aztertzea. Printzipioz, gaia zehaztugabeagoa da, baina garrantzitsua da, Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeen lanari gehitzen zaion beste balio bat bistaratzen baitu, interes orokorrerako joera indartzen baitu, eta gainera, gizartearen osotasunean ondorioak baititu.

Eraldaketa soziala Euskadiko hirugarren sektore sozialeko nortasunaren egitura mailako elementua da, eta Euskadiko hirugarren sektore sozialak ondorio sozial handiko aldaketa-prozesuetan nola eragin duen aztertzeak azalera dezake erakundeek egindako lanaren garrantzi soziala. Erakundeak murgilduta dauden ingurunearekin lotzen du, gainera, eta herritarrekin, oro har.

Zergatik da garrantzitsua aldaketa soziokulturaletako prozesuetan Euskadiko hirugarren sektore sozialak egindako ekarpena ikertzea?

Hirugarren Sektoreari buruzko Bizkaiko herritarren pertzepzioa ikerketan markatutako bideari jarraituz, lan honen asmoa da Euskadiko hirugarren sektore soziala gizartearengana hurbiltzea, eta azken batean, egiten duten lana gizartean gehiago aitortzea. Horrez gain, sektoreari eta bertako erakundeetara herritarrekin, oro har, komunikazio hobea eta handiago ezartzen lagun diezaieketen alderdi batzuk identifika ditzakegu.

³ Txostena esteka honetan kontsulta daiteke: http://www.3sbizkaia.org//Editor/Archivos/Docs/Informe_final.pdf

Gainera, ikerketaren gaia bat dator Europako *Third Sector Impact*⁴ proiektuaren planteamenduarekin. Europar Batasuneko FP7 programak finantzatzen du; 2014tik Europa mailan hirugarren sektorearen eragina neurtzen eta bistaratzen lanean ari baita.

Euskadiko hirugarren sektore sozialeko Liburu Zuriak (2015) zehazten duen moduan, eraldaketa soziala sektoreko erakunde guztien DNAn dago. Erakundeen eraldaketa-joerarekin argien lotzen den funtzioetako bat da eragin-funtzioa, baina badira beste batzuk ere, hala nola ikertzea, behar berriak detektatzea, berritzea eta abar. Gainera, erakundeek gizartea eraldatzen laguntzen dute herritarren esku zerbitzu eta aukera berriak jartzen dituztenean eta salaketa hitz egiteko eta lankidetzan jarduteko aukerarekin konbinatzen dutenean, bai administrazioarekin, bai ongizate sozialean eragindako beste eragile batzuekin.

Eraldaketa eta aldaketa soziala ez da sektoreko egiturazko elementu hutsa, aurre egin beharreko erronkak ere badira. Hain zuzen ere, Euskadiko hirugarren sektore sozialeko Liburu Zuriak (2015) proposatutako erronken artean, 2. erronkak modu esplizituan aipatzen du eraldaketarako funtzioaren eta joeraren oreka sustatzea, eta bertan, zehazki aipatzen da Euskadiko hirugarren sektore sozialak sentsibilizazioko, salaketako eta proposatzeko forma berriak aktibatzeko erronka duela (hartzaileei edo erabiltzaileei protagonismoa emanez, sare sozialak erabiliz...), eragin handiagoa izan dezaten, dagokien publikoaren ikuspegitik, eta jarrera eta jokabideen eraldaketarako.

Bidegabeko egiturak eraldatzeaz eta eskubideak sustatzeaz gain, erakundeen eraldaketa-ekintza pertsonen eguneroko bizitzako esparruan ere ageri da, zerbitzuetan, lan-ingurunean, baita erakundeen gertueneko ingurunean ere. Mikro eraldaketa da, erakunde baten proiektua lurralde batean sustraitzea eragiten duena, eta azkenean fruituak ematen dituena: jarrerak eta jokabideak eraldatzea, solidaritatea, elkar laguntzea, erakundeen inplikazioa eta abar.

Era berean, eraldaketa sozialean aurrera egiteak berekin dakar erakundeak herritarren parte-hartze soziala, oro har, eta oinarri sozial propioa aktibatzeko gai izatea, baita jokabideak ere (pertsonalak, familiakoak, erakunde mailakoak...), lortu nahi den gizarte-ereduarekiko koherenteak izan daitezen. Hori dela eta, arreta jarri behar zaio herritarrekin hobeto konektatzeari, eta erakundeen oinarri soziala indartzeari.

Laburbilduz, proposatzen denaren moduko proiektu batek:

- Hirugarren sektoreko erakundeen aurreko lanekin lotura egiten du, baita Europa mailan indarrean dauden proiektuekin ere.
- Euskadiko hirugarren sektore sozialek herritarrekin eta gizartearekin duen lotura indartzen du.
- balioa ematen dio Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeek gizarteratzearekin lotuta eraldaketa sozialari egiten dioten ekarpenari.

⁴ Proiektuari buruzko informazioa esteka honetan kontsulta daiteke: <https://thirdsectorimpact.eu/>

Ikerketa lantzeko erabili beharreko marko teoriko eta kontzeptuala

Ikerketa lantzeko proposatzen den marko teoriko eta kontzeptualak honelako galderei erantzun nahi die: Zer ulertzen dugu eraldaketa sozial/aldaketa sozial esandakoan? Nola definitzen dira aldaketa soziokulturaleko prozesuak eta zer elementu daude jokoan? Zer aldaketa-prozesu identifikatzen ditugu gure testuinguruan?

Eragile sozialen artean (banakoak, taldeak edo erakundeak izan daitezke) behin eta berriz ezartzen diren harreman sozialen sareetan izaten diren nahasmenduei deitzen zaie aldaketa sozial. Azken batean, egitura sozialean izandako aldaketak dira. Aldaketa sozialaren jatorria ez da nahitaez eragile sozial multzo batek nahita egindako ekintza izango; aurrez ikusi gabeko eta nahi gabeko giza ekintzen ondorio izan daitezke (merkatuko elkarreraginak, teknologia berrien garapena...).

Aldaketa sozialaren kontzeptuak, beraz, magnitude txikiagoko fenomeno bati egiten dio erreferentzia: gizartean orokorrak diren egituretan izandako eraldaketak. Aldaketa soziokulturala aipatzen dugu, ez aldaketa kulturala soilik; izan ere, gizartean orokorrak diren egitura horiek aldatzeak eragile sozialen ekintza baldintzatzen dute eta arreta publikoa egituratzen dute.

Ikerketa, orduan, gizartean orokorrak diren egitura jakinak aldatzeko prozesuetan oinarritzen da; Euskadiko hirugarren sektore sozialak nahita esku hartzen duen prozesuetan, eta aurrez ikus daitekeenez, erresistentziak topa ditzakegu horietan, edo beste eragile sozial batzuek egindako kontrako esku-hartzeak, Euskadiko hirugarren sektore sozialak duenetatik ikuspegi ezberdina izan baitezakete. Hala, ikerketak tresna kontzeptualak hartzen ditu kulturaren soziologiatik (gizartean orokorrak diren egiturak diren neurrian) eta esfera publikoaren soziologiatik eta gatazken azterketatik (nahiko gatazkatsuak diren testuinguruetan gertatzen diren komunikazio publikoko prozesuekin lan egiten dugun neurrian).

Testuinguru honetan azterketarako gakoa den kontzeptu bat markoa edo *frame* delakoa da, Goffman-ek (1974) proposatutakoa. Asko erabili izan da ekintza kolektiboa aztertzeko (Benford eta Snow, 2000). Goffman-en (1974) arabera, markoek interpretazio-eskemak erakusten dituzte, eta horiei esker, pertsonak bizi-espazioan eta munduan gertakariak lokalizatu, hauteman, identifikatu eta etiketatu ahal izaten dituzte. Markoek gertakari edo ekintzak adierazgarri egitea ahalbidetzen dute, eta beraz, esperientzia antolatze eta ekintza gidatzeko balio dute.

Horrekin lotuta, eta proiektu honetarako, azterketa-marko hori Euskadiko hirugarren sektore sozialera eramatea proposatzen da, eta aldaketa soziokulturei egindako ekarpena fenomeno sozial edo kolektibo jakinen berrenkoadraketatik (*reframing*) ikustea. Hala, Euskadiko hirugarren sektore sozialak egindako lanaren balioa hauen arabera azter liteke:

- kolektibo batzuen inguruko kontaktak berrenkoadratzea.
- horien arazoekiko kontzientziatzea
- eta errealitate horiekiko sentsibilizatzea

Marko jakin baten onarpena eta hedapena ulertzeak eskatzen du, baita ere, aldaketa soziokultural horiek gertatzen diren testuingurua aintzat hartzea, baita haien prozesu-izaera ere. Zehatzago, elkarrekintzaren eremu soziala aztertu behar da (hau da, zer eragilek parte hartzen duten eta nola antolatzen diren: pasiboak, Euskadiko hirugarren sektore sozialetik berrenkoadratze-prozesuekiko kontrako jarrera aktiboa dute, babestu egiten dituzte...), baita giltzarri diren baliabideen banaketa ere (izen ona, informazioa, harreman sozialak...) eta agian aurrez ikusi gabeko eta aldaketa soziokulturelek prozesu horiek modu batean edo bestean baldintzatuko lituzketen ekintza jakinak bururatzea.

PLANTEAMENDUA

Aipatu dugun moduan, proiektuaren asmoa da **Euskadiko hirugarren sektore sozialak (TSSE, gaztelaniaz) aldaketa soziokulturaleko prozesuetan egiten duen ekarpena aztertzea**. Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeek duela hainbat hamarkadatik egiten duten lanak nabarmen lagundu du eragin sozial handiko aldaketak sortzen. Politika publikoetan izandako eragina da agerikoena. Kasu honetan, ikerketa-proiektua gai zehaztugabeagoan oinarritzen da, baina era berean garrantzitsua da: aldaketa soziokulturalak, hala nola pertzepzio-aldaketak, hizkuntza-aldaketak (hizkuntza inklusiboa eta abar) edo herritarren jokabidea, oro har. Hori ez da sentsibilizazio-aldaketetan soilik islatzen, aldaketa berrien eragile ere bada.

Azterketa honen bidez, Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeek aldaketa soziokulturalean egiten duten **ekarpena bistaratu** nahi da, egindako lanari **erabateko balioa** ematen baitio.

Azterketaren zati bat EHUko Zientzia Politikoen saileko irakasle batekin lankidetzan egin liteke.

Hipotesia

Ikerketa esplorazio-ikerketa gisa planteatzen da; beraz, laneko hipotesi bat formulatzen da, hau da, behin-behinean baliozko gisa onartuko den baieztapen bat, eta hortik aurrera ikerketa-lana garatuko da. Azken helburua ez da izango hipotesi hori baliozkotzea edo baztertzea, baizik eta hura oinarri hartuta ondorio zehatzagoak ateratzeko.

Hipotesia: *Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeak aldaketa soziokulturaleko eragileak dira.*

Hona hemen laneko hipotesi hori garatuko den eta jarraian azalduko ditugun helburuetan zehaztuko diren ildoetako batzuk:

- Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeek aldaketa-prozesu horietan duen rola zehaztea (aldaketaren sustatzaileak, indartzaileak, bideratzaileak eta abar).

- Aldaketa soziokulturaleko prozesuetan Euskadiko hirugarren sektore sozialaren eragina ahalbidetu duten ekintzarako baliabideak eta estrategiak identifikatzea.
- Aldaketa soziokulturaleko prozesu horien baldintzatzaile nagusiak identifikatzea.

Helburuak

Ikerketa-proiektuaren helburu nagusia da Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeek ikaskuntza kolektiboko prozesu bihurtu ahal izan diren aldaketa soziokulturalak sortzen zer rol izan duten ikertzea (sustatzailea, indartzailea, berriz definitzea). Helburu hori helburu espezifiko hauetan zehaztuta dago:

HELBURUAK	• ERANTZUN NAHI DIEGUN GALDERAK
<p>1. Euskadiko hirugarren sektore sozialak aldaketa soziokulturaleko prozesuei egiten dien EKARPENARI buruzko AZTERKETA egia: kasuak identifikatzea eta aldaketa horietan Euskadiko hirugarren sektore sozialak duen rola aztertzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Zer aldaketa soziokulturaleko prozesutan izan du presentzia Euskadiko hirugarren sektore sozialak? • Zer rol izan du aldaketa soziokulturaleko prozesu horietan? • Zer mailatan egin du aldaketarako ekarpena: gizartearen pertzepzioa, hizkuntzaren erabilera...? • Zer baliabide eta estrategia erabili dira? Zer elementuk baldintzatu du? • Zer ondorio izan ditu?
<p>2. Euskadiko hirugarren sektore sozialak aldaketa horiei egiten dien ekarpena BISTARATZEA sustatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Zergatik da garrantzitsua aldaketa soziokulturaleko prozesuetan Euskadiko hirugarren sektore sozialak izan duen rolari balioa ematea? • Nola ari da bistaratzen ekarpen hori? Zer estrategia jar daitezke abian hobeto bistarazteko?
<p>3. TOPAGUNEAK eta HAUSNARKETARAKO GUNEAK ahalbidetzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Zer hausnarketa egiten dute Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeek aldaketa sozialean izan duten ekarpenari buruz? Jabetzen dira erakundeak lan horretaz? Jakinarazten dute? • Nola egin dezakegu aurrera erronka eraldatzaile berrietarantz? • Zer ikaskuntza atera ditzake Euskadiko hirugarren sektore sozialak?

METODOLOGIA ETA LAN PROZESUA

Euskadiko hirugarren sektore sozialak aldaketa soziokulturalak sortzean izan duen rola ikertzea proposatzen da. Horretarako, kasu-azterketa ugari erabiliko dira, eta horietan tresna kualitatibo ugari erabiliko dira.

Landa-lana egiteko, Euskadiko hirugarren sektore sozialak lana bideratzen dien erakundeetako kolektibo ugarian oinarritutako kasu-azterketak proposatzen dira. Printzipioz, azterketa-kasu posible hauek proposatzen dira: etorkinak, LDGTBI, desgaitasuna duten pertsonak, mendekotasun- edo drogamendekotasun-arazoak dituzten pertsonak, txirotasun-arriskua edo txirotasun-egoera duten pertsonak, adinekoak eta prostituzioan dabiltzan pertsonak. Hala ere, baliteke landa-laneko prozesuan bertan azterketa-kasuak berriz definitzea, beraz, proposatutako kasuak ugari, murriztu edo aldatu egin daitezke.

Planteatutako helburuak ikusita, proiektura ondoen egokitzen den metodologia metodologia mistoa da, teknika kuantitatiboak eta kualitatiboak konbinatzen dituena. Hauek dira erabiliko diren teknikak:

1. Marko teorikoa egitean, **bigarren mailako iturrietako datuak aztertuko** dira, azterketa-helburu den objektua testuinguruan jartzeko. Eraldaketa sozialarekin lotutako gaietan lehen hurbilketa egiteko datuak jasotzea da helburua: pertzepzioa eta herritarrek gai jakin batzuekiko duten sentzibilitatea, gizarte mailako jokabide-aldaketetako joera eta abar. Datu horiek proxie gisa erabiliko dira azterketa-helburuarekin duten lotura dela eta. Harreman horren arabera, testuinguru-elementuak sar daitezke.
2. **Elkarrizketa sakonak Euskadiko hirugarren sektore sozialeko pertsoneri:** Erdiegituratutako elkarrizketen gidoi bat oinarri hartuta, ikerketa-taldeak banaka elkarrizketatuko ditu Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeetako pertsonak. Haien ibilbideak eta informazio-emaile gisa duten garrantziak ahalbidetuko dute Euskadiko hirugarren sektore sozialak aldaketa soziokulturaletan egindako ekarpenari buruzko informazioa ateratzea. Elkarrizketa horien helburua da Euskadiko hirugarren sektore sozialak eraldaketa sozialaren arloan egin duen lana oinarri hartuta, erakundeetako pertsonen esperientzia biltzea. Euskadiko hirugarren sektore sozialean informatzaile gakoak diren pertsoneri 12 elkarrizketa sakon egitea aurrez ikusi da


Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeetako pertsonen lagina aukeratzeko, nahita egindako laginketa bat hartuko da; beraz, lagineko pertsonak ez dira ausaz aukeratuko, nolabaiteko irizpidearekin baizik. Ez da beharrezkoa ordezkagarritasun maila bat, baina ikertzen duenari eskatzen zaio informazio garrantzitsua jasotzeko egoera onena izatea, hala, lagina bideratu beharko du informazio kopuru (saturazioa) eta kalitate (aberastasuna) onena bermatuko dion pertsonen aukeraketa egiteko. Lagin arrazoitua edo komenigarritasun-lagina ere deitzen zaio, bertan ez baitira kalkulu estatistikoak sartzen, ez da estatistikoki adierazgarria, baina teknika kualitatiboekin lan egiteko modu egokiena da, eta pertsona kopuru murrizari egiten zaio kontsulta, informatzaile egokienak direla uste diren horiei, hain zuzen ere.

3. **Edukiaren azterketa:** testuen azterketa, hala nola erakundeetako dokumentuak, prentsa-artikuluak, dokumentu publikoak eta abar, kolektibo batzuen inguruan kontakizunak nola berrenkoadratu diren aztertzeko eta berrenkoadratze horiek beste eragile sozial batzuk nola hartu dituzten aztertzeko. Edukiaren azterketaren oinarritzko helburua da idatzitako dokumentua osatzen duten elementu batzuk identifikatzea eta kategoriatan

sailkatzea fenomeno sozial batzuk azaltzeko. Edukiaren azterketa egiteko, dokumentuen lagin egokia egin, edukia azterketa-unitatetan sailkatu kode eta kategoria sistema baten arabera, eta edukia kodifikatuta eta kategorizatuta aztertu eta interpretatu behar da. Edukiak bi fasetan azterzea proposatzen da:

- a. Azpilagina: azterketa sakonagoa, kualitatiboa. **Gaitasunarekin lotutako markoak hobeto ulertzeko, bereziki Euskadiko hirugarren sektore sozialarenak, eta haien bilakaera.**
 - b. Lagin zabalagoa: edukiaren azterketa kuantitatiboa. Euskadiko hirugarren sektore sozialak sustatutako markoaren hedapena aztertzeko pentsatuta, hori beste eragile batzuk hartzea (prentsa, erakunde publikoak eta abar).
4. **Sektoreko erakundeekin hausnarketa bateratua egiteko mintegia:** Topagunea sortzea da helburua, eta bertan eragile multzo bat sartzeari, elkarrekin, Euskadiko hirugarren sektore sozialak aldaketa soziokulturalak eragiteko duen gaitasunari buruz hausnar dezaten, aldaketarako ekarpen horrek dakarren balioa nola bistaratu eta horretatik guztitik zer ikas daitekeen azter dezaten.

Hori guztia kontuan izanda, proiektua lantzeko laneko plan hau proposatzen da:



BIBLIOGRAFIA

Benford, R. D. y Snow, D. A. (2000). Framing processes and social movements: an overview and assesment. *Annual Review of Sociology* 26, 611-63.

Canto, A.; Cabezas, I.; Romeo, Z.; López-Aróstegui, R. (2012). *Percepción de la población de Bizkaia sobre el Tercer Sector*. Bilbo: Bizkaiko Hirugarren Sektoreko Behatokia.

Canto A.; López-Aróstegui, R.; Romeo, Z. (2015). *Libro Blanco del Tercer Sector de Euskadi*. Bilbo: Bizkaiko Hirugarren Sektoreko Behatokia.

Eusko Jaurlaritz. 6/2016 Legea, maiatzaren 12koa, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzkoa.

Goffman, E. (1974). *Frame Analysis: An essay on the Organization of the Experience*. New York: Harper Colophon

Romeo, Z.; López-Arostegui, R.; Castillo, R.; Fernández, I. (2012). *Historia del Tercer Sector de Acción Social de Bizkaia. Construyendo alternativas solidarias desde el territorio*. Bilbo: Bizkaiko Hirugarren Sektoreko Behatokia.